



K O S T A N  
E L K A R T E A

# AMETS ARZALLUSeKin hizketan


2024.02.08

# MIÑAN

AMETS ARZALLUS ANTIA  
IBRAHIMA BALDE



THIANKOI



GINEA



“Ez zen hau nire destinoa... Nik kamioiak gidatuz bizi nahi nuen,  
Konakrytik Nzerekorera eta Nzerekorera Konakra, eta lan  
horrekin nire familia lagundu. Baina Alhassanek etxetik ihes egin  
zuen eta haren bila abiatu behar izan nuen.”

“Ni European nago baina nik ez nuen Europara etorri nahi.”

## *Miñan*

Liburu hau Ibrahima Baldek idatzi du, ahoz  
eta Amets Arzallus Antiak idatzi du, eskuz

“Nik ez nuke hitz egin nahi holako gauzez, kontatzen dudanean ikusi egiten dudalako, nire begien aurrean, esplikatzen ari naizen guztia. Zu orain hemen zaude, entzuten, baina ni han nago, nire haragiaren barruan, eta kontatzen dudanean berriz bizi dut esplikatzen ari naizen guztia. Horregatik, ez nizuke hitz egin nahi holako gauzez. Baina zuk galdetu didazu, eta esan dizut. Eta esan dizudanean berriz sentitu dut dena...”

“Batzuetan pentsatzen dut, lortuko ote dut hau dena ahaztea? Zeren eta burua armairu bat bezalakoa da, eta armairutik gauza bat ateratzeko armairuan beste gauza bat sartu behar duzu. Hola gauza berriak gauza zaharraren lekua hartuko du. Baina nik, hemen, nire asiloaz erabakitzen duten bitartean, ez dut ezer egiten. Ez daukat lanik, ez daukat lagunik, eta ez daukat armairuan sartzeko ezer. Nire oroitzapenak hor daude, mugitu gabe. Eta egunero atakatzen naute.”



“Hau ez da berak bizi izandakoa bakarrik, batez ere da berak bizi izandakoa nola gogoratzen duen eta nola kontatzen duen.”

*memoria, imaginazioa, kontakizuna,*


## **Ama**

Gineako fulok, badugu esaera bat, eta  
honela dio:

*Nahiz eta ama bizkarrean hartu  
eta Mekaraino oinez eramán,  
ez duzu zentimo batez ere ordainduko  
hark zugatik egin duen guztia.*

## Emigrazioaren alde krudela

“Eta badakit zer galdetuko didaten, ea zergatik ez nintzen etxera itzuli, nire destinoa ez bazen Europa. Nik ere askotan galdetzen diot hori nire buruari, eta ez da esplikatzeko erreza. Baina esango dizut. Bat, kulpa batek kolpatzen zaituenean zaila da zure bidea aurkitzea. Bi, Aljeriaraino edo Libiaraino iritsi zarenean, atzera egiteko beranduegi da, etxea urrunegi gelditu zaizu. Eta hiru, nik ez dut nire amaren begiek ni ikusterik merezi. Hori da egiazki pentsatzen dudana.”



## Etorkizuna

“Gauza bakarra eskatzen dizut, *koto, ez ahaztu* ama. Ez pentsatu beste ezertan, ez pentsatu nola alde egin dudan etxetik, ez pentsatu nola utzi dudan eskola. Nik laguntzeko bide bat hartu nahi nuen, **gure atzean ez dagoelako etorkizunik. Begiratu dut, eta ez dago.**”

(E)(I)migratzea ez da delitua

“Liburua nirekin ibiltzen dut baina ez dut sekulan  
zabaltzen. Zabaltzea gogorra eta minbera zait.”



Eta zu, hainbeste aldiz aipatua,  
nor zaren pentsatzen ariko zara.

Zu agian polizia zara,  
komisario bateko mahai batean  
nire asiloaz erabakitzen ari dena.  
Zuk ikusiko duzu  
nirekin zer egin.

Edo zu, agian, nire ama zara  
Fatima Diallo  
hitz batzuk ostu dizkizut,  
barkatu,  
hau dena ez dizut kontatu orain arte.

Edo zu zara Fatumata Binta  
edo zu Rouguiatou  
nahi nuke jakin dezazun  
Ibrahima ez dela zutaz ahaztu

Baina kontakizun honek zu gehiago ditu,



Zu zara Ismail  
edo zu zara Emi  
galdetzen dizut gaur bizi ote zaren,  
eta non zauzkan zoriak.

Edo zu zara beharbada  
orain basamortua zeharkatzen ari zarena,  
edo basoan zaudena *programa* baren zain,  
zuretzat ere bada informazio hau guztia.

Edo zu zara honaino iristen lagundu didana,  
Oranen edo Irunen,  
zenbat zu

Edo sinpleki  
zu zara zu  
orain poema hau irakurtzen ari dena

Esango duzu  
zu hori ni naiz?

Bai  
nahi baduzu  
zu hori zu zara

baina ni ez,  
ni Ibrahima naiz,  
eta hau da nire bizitza

Bai  
nahi baduzu  
zu hori zu zara

baina ni ez,  
ni Ibrahima naiz,  
eta hau da nire bizitza





